



Mendekotasuna

Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA





Mendekotasuna

HIZTEGIA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017





Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

HITZAURREA

Beste edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartean duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan www.euskara.euskadi.eus/euskalterm dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Argitaraldia: I.a, 2017ko xxxxxx

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
 Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
 Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskara.euskadi.eus/euskalterm

Azala: Concetta Probanza

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX



Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 29a

MIREN DOBARAN URRUTIA

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuen barruan. Kontratuok HPSk eta IVAPek finantzatu dituzte, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenen bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenetasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

¹ 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa



Hiztegia erabilitako ponderazio-markak:

- (4) Termino normalizatua / gomendatua
- (3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegia erabilitako laburtzapenak:

- eu** euskara
- es** español
- fr** français
- en** english
- Sin.** sinonimoa
- Ik.** ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Arantxa Aiartza Azuriza (Gipuzkoako Foru Aldundia. Osasun Mentaleko eta Soziosanitarioko atalburua)

Maite Artieda (Gorlizko Ospitalea. Errehabilitazio medikua)

Jabier Agirre (UZEI)

Koordinatzailea: **Nerea Laskibar** (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

Eneko Oregi Goñi, IVAPeke zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

Jorge Giménez Bech, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

Maite Imaz Leunda, IVAPeke ordezkaria

Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria

Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Mertxe Olaizola Maiz, aditua

Joseba Erkizia Itoitz, aditua

Asier Larrinaga Larrazabal, aditua

Miel Loinaz Beristain, aditua

Alberto Atxabal Rada, aditua

Alfontso Mujika Etxeberria, aditua



UZEIren LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Ana Agirre. INGEMA (Hezkuntza Saila)

Ander Zapirain. TXARA

Juanjo Aurrekoetxea. Medikua. Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila.
Ikuskaritza Medikua

Lorea Imirizaldu. Medikua. Iruñeko Bideko Ama Birjina ospitalea

Maite Imaz. HAEE/IVAP

Mikel Albarez. Medikua. Mondragon Health

Pablo Arrieta. INGEMA (Hezkuntza Saila)

Patxi Letamendi. Medikua. Deustuko anbulatorioa

EREMU - ZUHAITZA

1 Funtzionamenduaren, desgaitasunaren eta osasunaren sailkapena

- 1.1 Termino orokorrak
- 1.2 Funtzionamendua eta desgaitasuna
 - 1.2.1 Gorputz-funtzioak eta gorputz-egiturak
 - 1.2.2 Jarduerak eta parte-hartzea
- 1.3 Testuinguruko faktoreak
 - 1.3.1 Inguruneko faktoreak
 - 1.3.2 Faktore pertsonalak

2 Mendekotasuna, arlo soziala

- 2.1 Zerbitzuak eta prestazioak
- 2.2 Eskubideen arloa



AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| Bokabularioa sailka | 13 |
| 1. FUNTZIONAMENDUAREN, DESGAITASUNAREN ETA OSASUNAREN SAILKAPENA | 14 |
| 1.1. Termino orokorrak | 14 |
| 1.2. Funtzionamendua eta desgaitasuna | 17 |
| 1.2.1. Gorputz-funtzioak eta gorputz-egiturak | 17 |
| 1.2.2. Jarduerak eta parte-hartzea | 31 |
| 1.3. Testuinguruko faktoreak | 38 |
| 1.3.1. Inguruneko faktoreak | 38 |
| 1.3.2. Faktore pertsonalak | 40 |
| 2. MENDEKOTASUNA, ARLO SOZIALA | 41 |
| 2.1. Zerbitzuak eta prestazioak | 41 |
| 2.2. Eskubideen arloa | 49 |
| Euskarazko aurkibidea | 53 |
| Gaztelaniazko aurkibidea | 61 |
| Frantsesezko aurkibidea | 69 |
| Ingelesezko aurkibidea | 75 |
| Erreferentzia bibliografikoak | 81 |

BOKABULARIOA SAILKA



I. FUNTZIONAMENDUAREN, DESGAITASUNAREN ETA OSASUNAREN SAILKAPENA

I.1. Termino orokorrak

1

autonomia (4)

Nork bere arau eta hobespenen arabera nola bizi behar duen kontrolatzeko eta erabaki pertsonalak bere kabuz hartzeko gaitasuna, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko baliatzen dena.

es autonomía

fr autonomie

en autonomy

dependentzia

Ik. mendekotasun

2

desgaitasun (4)

Pertsona batek duen urritasun fisiko, mental, sentimenezko edo intelektualaren eta inguruneke oztipoen arteko interakzioaren emaitza. Oinarritzko jarduerak betetzeko mugapenak ezartzen dizkio pertsona horri, eta eragotzi egiten dio gizartean osoki eta eraginkortasunez eta gainerakoekiko baldintza-berdintasunean parte hartzea.

es discapacidad

fr handicap

en disability

3

desgaitasuna duen pertsona (4)

Urritasun fisiko, mental, intelektual edo sentimenezkoak dituen pertsona, inguruneke oztipoekiko interakzioen ondorioz mugapenak eta eragozpenak dituena oinarritzko jarduerak betetzeko eta gizartean osoki eta eraginkortasunez parte hartzeko gainerakoekiko baldintza-berdintasunean.

es persona con discapacidad

fr personne handicapée

en person with disability

4

domeinu (4)

FNS osatzen duten eskaletako bakoitzean, sarrera edo epigrafe baten barnean bil daitezkeen elementuen multzoa. Elkarren artean erlazioaturiko ekintzek, funtzio fisiologikoen, egitura anatomikoen, zereginek eta bizitzako arloek osatzen dute.

es dominio

fr domaine

en domain

FNS

Ik. Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena

5

funtzionamendu (4)

Gizabanakoaren (eta haren osasun-egoeraren) eta testuinguruko faktoreen (inguruneke faktoreen eta faktore pertsonalen) arteko elkarrekintza dinamikoak dituen alderdi positiboan multzoa, gorputz-funtzioak, gorputz-egiturak, jarduerak eta parte-hartzea biltzen dituena.

es funcionamiento

fr fonctionnement

en functioning

6

Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena (4)

Sin. FNS (4)

Hizkera bateratu eta estandarizatua erabiliz osasuna eta osasunarekin erlazioaturako eremuak sailetan antolatzen dituen argitalpena, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) prestatu eta berrikusitakoa. Besteak beste, osasuna eta osasunarekin erlazioaturako egoerak deskribatzeko marko kontzeptual egokia eskaintzea du helburu. 2001. urtean onartu zuen OMEk, eta Urritasunen, Desgaitasunaren eta Minusbalotasunaren Nazioarteko Sailkapena (UDMNS) ordeztu zuen, 1980an onartua.

es Clasificación Internacional del Funcionamiento, la Discapacidad y la Salud; CIF

fr Classification internationale du fonctionnement, du handicap et de la santé; CIF

en International Classification of Functioning, Disability and Health; ICF

7

kalifikatzaile (4)

FNSko osagaietako bakoitzaren kasuan, osagai horren eskalako item bat deskribatzen edo aldatzen duen elementua. Kalifikatzaileen multzoak osagai horren konstruktua jakin bat osatzen dute.

es calificador

fr qualificatif

en qualifier

8

konstruktua (4)

FNSko osagaietako bakoitza deskribatzeko edo aldatzeko erabiltzen diren kalifikatzaileen multzoa. Gaitasuna, performantzia eta funtzionamenduan edo gorputz-egituretan izandako aldaketak, esaterako, konstruktua dira.

es constructo

fr schéma

en construct

9

mendekotasun (4)

Sin. dependentzia (4)

Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerari aurre egiteko beste pertsona baten arreta edo laguntzaren premian aurkitzen den pertsonaren egoera: autonomia fisiko, mental, intelektual edota sentzorialaren gabezia edo galeraren ondorioz sortzen da, edo adinaren, gaixotasunaren edo desgaitasunaren ondorioz.

es dependencia

fr dépendance

en dependence



10

ongizate (4)

Gizabanakoak bizimodu egokia izateko betebeharrak guztiak aseak dituen egoera, gizabanakoaren alderdi fisikoak, mentalak eta sozialak barnean hartzen dituenak. Giza bizitzaren osatzen duten eremuen unibertso osoari dagokio, eta unibertso oso horretako eremuen azpiatal bat da osasuna.

- es bienestar
- fr bien-être
- en well-being; wellness

11

osagai (4)

FNSren bi zati nagusietan bereizten diren bi azpizatiak bakoitza. Adibidez, bi osagai bereizten dira funtzionamenduari eta desgaitasunari buruzko zatian: gorputz-funtzioak eta gorputz-egiturak, alde batetik; eta jarduerak eta parte-hartzea, bestetik.

- es componente
- fr composante
- en component

12

osasun-egoera (4)

Orokorrean gaixotasuna, asaldia, traumatismoa eta lesioa barne hartzen dituen termino generikoa. Horrez gain, beste inguruabar batzuk ere har ditzake barnean: haurdunaldia, zahartzea, estresa, sortzetiko anomalia edo aurretiko joera genetikoak. Osasun-egoerak GNS-10 katalogoan kodetzen dira.

- es estado de salud
- fr état de la santé
- en health state

13

testuinguruko faktore (4)

Pertsona baten eta haren bizitza-estiloaren oinarria osatzen duten faktoreetako bakoitza. Testuinguruko faktoreen artean ingurune faktoreak eta faktore pertsonalak daude.

- es factor contextual
- fr facteur contextuel
- en contextual factor

UDMNS

Ik. Urritasunen, Desgaitasunen eta Minusbaliotasunen Nazioarteko Sailkapena

14

Urritasunen, Desgaitasunen eta Minusbaliotasunen Nazioarteko Sailkapena (4)

Sin. UDMNS (4)
Osasunaren Mundu Erakundeak, gaixotasunen ondorioak sailkatzeko lehen eskuliburu gisa, 1980. urtean argitaratutako sailkapena. Hainbat berrikuspenen ondoren, Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenak ordeztu zuen, 2001ean.

- es Clasificación Internacional de Deficiencias, Discapacidades y Minusvalías; CIDDM
- fr Classification internationale des handicaps: déficiences, incapacités et désavantages; CIH
- en International Classification of Impairments, Disabilities and Handicaps; ICHIDH

15

Urritasunen, Jardueren eta Parte-hartzearen Nazioarteko Sailkapena (4)

OHARRA: Urritasunen, Desgaitasunen eta Minusbaliotasunen Nazioarteko Sailkapenak izandako berrikuspenaren zirriborroetako bat izan zen; 1997koa, hain zuzen.

- es Clasificación Internacional de Deficiencias, Actividades y Participación
- fr Classification internationale des handicaps, activités et participation
- en International Classification of Impairments, Activities and Participation

1.2. Funtzionamendua eta desgaitasuna

1.2.1. Gorputz-funtzioak eta gorputz-egiturak

adiadokozinesia

Ik. disdiadokozinesia

16

adimen-atzeratasun (4)

Batez bestekoa baino nabarmen apalagoa den gaitasun intelektual, eguneroko bizitzako jardueri aurre egiteko beharrezkoak diren egokitze-ahalmen mugatuak izatea eragiten duena. Jaiotzeko unean edo haurtzaroaren lehen faseetan hasten da, eta gizabanakoak behar bezala egokitzea eta ikastea eragozten du.

- es retraso mental; retraso intelectual
- fr retard mental; retard intellectuel
- en mental retardation

adimen-desgaitasun

Ik. desgaitasun intelektual

adimen-koziente

Ik. inteligentzia-koziente

adimen-lausotze

Ik. obnubilazio mental

17

adimen-urritasun (4)

Sin. buru-urritasun (3)

- es deficiencia mental
- fr arriération mentale; déficience mentale
- en mental deficiency

18

afasia (4)

Hitz egiteko edo hizkuntza ulertzeko gaitasunaren nahasmendua edo galera, gaitasun hori normaltasunez eskuratu ondoren gertatzen dena; burmuin-hemisferioko lesioek eragiten dute.

- es afasia
- fr aphasie
- en aphasia

19

ageusia (4)

Dastamena ez izatea edo galtzea, gaixotasun edo botika batek eraginda.

- es ageusia
- fr ageusie
- en ageusia



20

agitazio psikomotor (4)

Sin. asaldu psikomotor (4)
Antsietate-egoera, mugimendu-hiperaktibitatearekin eta, maiz, oldarkortasunarekin batera azaltzen dena.

es agitación psicomotriz
fr agitation psychomotrice
en psychomotor agitation

21

alodinia (4)

Min neuropatikoa, zona anatomiko itxuraz osasuntsu batean kaltegabeko estimulu batek (ukimenekoa, termikoa edo mekanikoa) eragina edo sorrarazia.

es alodinia
fr allodynie
en allodynia

amiotrofia

Ik. muskuluen atrofia

22

amnesia (4)

Oroimena guztiz edo neurri batean galtzea.

es amnesia
fr amnésie
en amnesia

23

anartria (4)

Hitzak ahoskatzeko edo artikulatzeko ezintasuna.

es anartria
fr anarthrie
en anarthria

24

ankilosi (4)

Berez mugikorra den giltzadura bateko mugimenduak murriztea edo erabat ezabatzea. Normalean, ankilosiaren jatorria giltzaduran bertan egon ohi da.

es anquilosis
fr ankylose
en ankylosis

anopia

Ik. anopsia

25

anopsia (4)

Sin. anopia (4)
Ikusmen-funtzioaren galera edo gabezia, erretina eta ikusmen-nerbioa osorik egon arren gertatzen dena; burmuineko lesioek eragiten dute.

es anopsia; anopia
fr anopsie; anopie
en anopsia; anopia

26

anormaltasun genetiko (4)

es anormalidad genética
fr anomalie génétique
en genetic abnormality

27

anosmia (4)

Usaimenaren galera edo gabezia nabarmena; behin-behinekoa edo behin betikoa izan daiteke.

es anosmia
fr anosmie
en anosmia

28

apraxia (4)

Borondatezko ekintza bat (mintzatzea edo janzte, esaterako) egiteko zailtasuna edo ezintasuna, gaitasun fisikoa, ekintza egiteko nahia eta ulermena mantendu arren gertatzen dena; burmuineko lesioek eragiten dute.

es apraxia
fr apraxie
en apraxia

artikulazioen egonkortasun

Ik. giltzaduren egonkortasun

29

artrosi (4)

Giltzaduretako gaixotasun degeneratiboa, kartilagoari eragiten diona eta giltzaduraren mugimendua murrizten duena.

es artrosis
fr arthrose
en osteoarthritis; OA; arthrosis

asaldu psikomotor

Ik. agitazio psikomotor

30

ataxia (4)

Borondatezko mugimenduen koordinazio txarra eragiten duen nahasmendua, zerebeloko eta orno-muineko atzeko kordioetako edo adarretako lesioengatik gertatu ohi dena.

es ataxia
fr ataxie
en ataxia

31

atetosi (4)

Nahasmendu neuromuskularra, gorputz-adarren (batez ere, hatz eta eskuen) etengabeko eta nahi gabeko mugimendu motel eta bitxiekin agertzen dena.

es atetosis
fr athétose
en athetosis

32

atzeratasun psikomotor (4)

Batez bestekoa baino nabarmen apalagoa den garapen psikomotorra, eguneroko bizitzako jardueri aurre egiteko beharrezkoak diren egokitze-ahalmen mugatuak edukitzea eragiten duena. Jaiotzeko uanean edo haurtzaroaren lehen faseetan hasten da, eta gizabanakoak behar bezala egokitzea eta ikastea eragozten du.

es retraso psicomotor
fr retard psychomoteur
en psychomotor retardation

33

autismo (4)

Garapenaren funtsezko nahasmendua, bizitzako lehenengo hiru urteetan azaltzen dena. Garunaren garapen normala eragozten du, eta bizitza sozialarekiko interesa eta errealitatearekiko harremana galtzea du ezaugarritzat. Pertsonak beren baitan bilduta bezala bizi dira eta sintomak arinak edo larriak izan daitezke.

es autismo
fr autisme
en autism

34

azinesia (4)

Mugimendu borondatezkoak eta automatikoak hasteko edo egiteko zailtasuna edo ezintasuna, paralisirik egon ez arren gertatzen dena. Parkinson-en gaixotasunaren ezaugarria da, baina ez harena bakarrik.

es acinesia
fr acinésie; akinésie
en akinesia



35

Binet-Simon eskala (4)

Alfred Binetek eta Théodore Simonek haurren eta nerabeen adimena neurtzeko sortutako eskala, lehen aldiz 1914an erabili zena.

- es escala de Binet-Simon
- fr échelle de Binet-Simon
- en Binet-Simon scale

36

borondatezko mugimenduen koordinazio (4)

Borondatezko mugimendu sinpleen edo konplexuen koordinazioarekin lotutako funtzioen multzoa; mugimendu horiek modu sekuentzian egiten dira.

- es coordinación de movimientos voluntarios
- fr coordination des mouvements volontaires
- en coordination of voluntary movements

37

bradilalia (4)

Hitzen artikulazio motela baina zuzena.

- es bradilalia
- fr bradylalie
- en bradylalia

38

bradipnea (4)

Arnasa hartzearen gelditasuna, minutuko 14 arnasaldi baino gutxiago gertatzea ezaugarritzat duena.

- es bradipnea
- fr bradypnée
- en bradypnea

39

bradizinesia (4)

Mugimendu automatikoen edo borondatezkoen moteltasun eta baldartasuna, kontzientzia-mailaren nahasmendurik ez izan arren gertatzen dena.

- es bradizinesia
- fr bradycinésie
- en bradykinesis

40

Broca-ren afasia (4)

Hitz-jarioaren galera ezaugarri duen asaldua. Hizkera motela izaten da, pobrea, eta ahoskera eta intonazioak ez dira egokiak. Ulermena partzialki mantentzen da, eta errepikapena, izendapena, irakurmena eta idazmena kaltetuak egon daitezke.

- es afasia de Broca
- fr aphasie de Broca
- en Broca's aphasia

buru-urritasun

Ik. adimen-urritasun

41

dementzia (4)

Zahartze normalaz gaindiko garuneko kalte edo lesioek sortutako nahasmendua, ezagutza-funtzioen galera progresiboa eragiten duena. Bereziki, oroimena, arreta eta problemen ebazpenaren arloak izan ohi dira gehien erasandako eremuak, baina sintoma nagusi horien aurretik denboran nahiz espazioan orientatzeko arazoak eta identitate-galerak azaltzen dira sarritan.

- es demencia
- fr démence
- en dementia

42

desgaitasun intelektual (4)

Sin. adimen-desgaitasun (4)
es discapacidad intelectual
fr déficience intellectuelle
en intellectual disability

43

disartria (4)

Hitzak ahoskatzeko gaitasunaren galera edo asaldua, nerbio-sistema zentralako edo periferikoko lesio batek eragindakoa. Pazienteak fonemen artikulazioarekin lotutako arazoak izan ohi ditu, ez mintzairaren arazoak.

- es disartria
- fr dysarthrie
- en dysarthria

44

disdiadokozinesia (4)

Sin. adiadokozinesia (4)
Txandakako mugimendu errepikatuak (esate baterako, esku-ahurrarekin edo eskugainarekin mahai gainean eritmikoki kolpeak ematea) modu bizkorrean egiteko ezintasuna. Batez ere, zerebeloko lesioen ondorioz gertatzen da.

- es disdiadococinesia; adiadococinesia
- fr dysdiadococinésie; adiadococinésie
- en dysdiadochokinesia; adiadochokinesia

45

disfonia (4)

Ahotsaren asaldua, ahotsaren ezaugarri akustikoei soilik (intentsitateari, tonuari edo tinbreari) eragiten diena.

- es disfonía
- fr dysphonie
- en dysphonia

46

dislalia funtzional (4)

Zerbait hitzez adierazteko gaitasunaren nahasmendua, fonazioko organoen anomalia edo lesio batek eragindakoa. Hainbat lekutan egon daiteke lesioa: mihian, hortzetan, ezpainenetan, ahosabaian edo faringean.

- es dislalia funcional
- fr dyslalie fonctionnelle
- en functional dyslalia

47

distonia (4)

Muskuluen etengabeko eta nahi gabeko mugimenduen ondoriozko ezohiko jarrera batek edo mugimenduek eragindako hipertonia.

- es distonía
- fr dystonie
- en dystonia

48

diszinesia (4)

Mugimendu nahi gabekoa eta ezohikoa. Adibidez: korea, dardara, distonia, atetosia eta abar.

- es discinesia
- fr dyskinésie
- en dyskinesia

49

eginkariei euste (4)

Eginkariak kanporatzeko funtzioa norberaren borondatez kontrolatzea.

- es continencia fecal
- fr continence anale
- en faecal continence



50

egoera begetatiboak (4)

Kontzientzia-egoera patologikoak, irizpide hauek definitzen dituztenak: 1.-Norbere buruaren edo inguruaren kontzientziarik eza, eta besteekin elkarri eragiteko ezintasuna. 2.-Ikusmen, ukimen, entzumen nahiz minaren estimuluekiko erantzun eutsi, erreproduzigarri eta borondatezkorik eza. 3.-Mintzamenaren (adierazpen nahiz ulermenaren) erabateko absentsia. 4.-Aldizkako esnatzeak, txandakako loaldi/esnaldiak adieraziak. 5.-Jarduera hipotalamikoa eta entzefalo-enborrekoa osorik egotea; horrek zainketa medikoekin bizirik irauteko modua ematen du. 6.-Eginkari-ihesa eta gernu-ihesa. 7.-Zenbait kasutan, nerbio kranial eta espinaletako erreflexuak mantentzea eta, beste batzuetan, aldiz, galtzea.

es estados vegetativos
fr états végétatifs
en vegetative states

51

egonkortasun psikiko (4)

es estabilidad psíquica
fr stabilité psychique
en psychic stability

52

ekolalia (4)

Entzundako hitzak edo hotsak automatikoki eta oihartzun gisa errepikatzea eragiten duen hizkuntzaren nahasmendua.

es ecolalia
fr écholalie
en echolalia

53

ekopraxia (4)

Hiztunaren solaskide batek edo hiztunari begira dagoen norbaitek egiten dituen keinuak hiztunak modu mimetikoan errepikatzea; horretarako inolako agindurik edo premiarik egon gabe errepikatzen ditu keinuak hiztunak. Garuneko lobulu frontalen funtzionamendua hondatzen denean agertzen da.

es ecopraxia
fr échopraxie
en echopraxia

entzumen-eskasia

Ik. entzumen-urritasun

54

entzumen-urritasun (4)

Sin. entzumen-eskasia (3)
Maiztasun jakin bateko soinuak entzuteko gaitasunaren urritasuna. Dezibelelan adierazten da.

es déficit auditivo
fr déficit auditif; perte auditive
en hearing loss

55

eroapeneko afasia (4)

Sin. konduktzio-afasia (4)
Entzumenezko ulermena normaltasunetik oso hurbil duen asaldua. Errepikapena, aldiz, oso kaltetua dago.

es afasia de conducción
fr aphasie de conduction
en conduction aphasia

56

eskotoma (4)

Ikusmen-eremuan ager daitekeen itsutasun partzialeko eremua, behin-behinekoa edo behin betikoa izan daitekeena. Erretinako edo ikusmen-nerbioiko lesio batek sortua izan daiteke, baita odol-hodietako alterazio batek eragina ere.

es escotoma
fr scotome
en scotoma

57

estupore (4)

Inkontzientzia partzialeko egoera, obnubilazioaren eta komaren artekoa: egoera horretan dagoen pertsonak ez dio erantzuten hitzeko estimulazioari, eta gaizki eta motel erantzuten dio estimulazio mingarriari.

es estupor
fr stupeur
en stupor

58

fonemen artikulazio (4)

es articulación de fonemas
fr articulation des phonèmes
en articulation of phonemes

59

gaitasun (4)

Zereginak ingurune uniforme batean egitea edo betetzea. Jardueren eta parte-hartzearen osagaian bereizten diren bi konstruktuetako bat da.

es capacidad
fr capacité
en capacity

60

garun-paralisi (4)

Sin. garuneko paralisi (4)
Garuneko lesio batek eragindako paralisia. Garun-paralisia eragiten duten garuneko lesioak fetu-garaitik haurrak 3 urte dituen arte gertatzen dira; 3 urtetik aurrera garuneko lesioek eragin ditzaketen paralisiak ez dira garun-paralitzat hartzen. Arazo psikomotorrekin batera, arazo sentsitiboak, kognitiboak, eta komunikazio eta pertzepziokoak eragiten ditu garun-paralisiak, eta, kasu batzuetan, baita portaerako arazoak ere. Garun-paralisia da umetan gertatzen den desgaitasunik usuena.

es parálisis cerebral
fr paralysie cérébrale
en cerebral paralysis; cerebral palsy

garuneko paralisi

Ik. garun-paralisi

61

gaueko itsutasun (4)

Ikusmenaren akatsa edo gabezia, ikusteko gaitasuna argi gutxiko egoeretan murrizten duena.

es ceguera nocturna
fr cécité nocturne; héméralopie
en night blindness

62

gernu-ihes (4)

Sin. gernu-inkontinentzia (3)
es incontinencia urinaria
fr incontinence urinaire
en urinary incontinence

gernu-inkontinentzia

Ik. gernu-ihes

63

genuari euste (4)

Pixa egiteko funtzioa norberaren borondatez kontrolatzea.

- es continencia urinaria
- fr continence vésicale
- en urinary continence

64

giltzaduren egonkortasun (4)

Sin. artikulazioen egonkortasun (4)

- es estabilidad de las articulaciones
- fr stabilité des articulations
- en stability of joints

GMI

Ik. gorputz-masaren indize

65

gorputz-adar baten

anputazio (4)

- es amputación de una extremidad
- fr amputation d'un membre
- en limb amputation

66

gorputz-egiturak (4)

Gorputzaren zati anatomikoak edo egiturazko zatiak, esaterako: organoak edo gorputz-adarrak, baita horien osagaiak ere, gorputzeko sistemen arabera sailkatuak. Gorputz-egiturak balioesteko erabili ohi den estandarra da gizakientzat arau estatistikotzat jotzen dena.

- es estructuras corporales
- fr structures anatomiques
- en body structures

67

gorputz-funtzioak (4)

Gorputz-sistemetako funtzio fisiologikoen eta funtzio psikologikoen multzoa.

- es funciones corporales
- fr fonctions organiques
- en body functions

24

68

gorputz-masaren indize (4)

Sin. GMI (4)

- es índice de masa corporal; IMC
- fr indice de masse corporelle; IMC
- en body mass index; BMI

69

gorputz-sistemak (4)

- es sistemas corporales
- fr systèmes organiques
- en body systems

70

gorreri (4)

Sin. gortasun (4)

Entzumenik eza, entzumena ahultzea edo erabat galtzea.

- es sordera
- fr surdit 
- en deafness

gortasun

Ik. gorreri

71

hartzeko eta adierazteko

disfasia (4)

Nerbio-sistema zentralean lesio batek eragindako hizkuntzaren nahasmendua, hitz egitea zailtzen duena: hartzeko eta adierazteko disfasia duen pertsonak zailtasunak izaten ditu bai hizketan ari denari entzundakoa osorik edo zati batean ulertzeko bai bere ideiak hitzen bidez adierazteko.

- es disfasia receptivo-expresiva
- fr dysphasie de r ception/expressive
- en receptive/expressive dysphasia

72

hemiparesia (4)

Gorputz-erdi bateko muskuluen paralisi partziala. Normalean, garuneko hodieta istripu batek eragiten du, baina bizkarrezurrari edo garuneko hemisferioei erasaten dieten patologiek ere eragin dezakete.

- es hemiparesia
- fr h mipar sie
- en hemiparesis

73

hemiplegia (4)

Gorputz-erdi bateko muskuluen erabateko paralisia. Normalean, garuneko hodieta istripu batek eragiten du, baina bizkarrezurrari edo garuneko hemisferioei erasaten dieten patologiek ere eragin dezakete.

- es hemiplejia
- fr h miplegie
- en hemiplegia

74

hipersomnia (4)

Gehiegizko logura, patologikoa izan daitekeena.

- es hipersomnia; hipersomnio
- fr hypersomnie
- en hypersomnia

75

hipertonía (4)

Gehiegizko tentsioa edo tonua, bereziki, muskuluei dagokiena.

- es hipertonia
- fr hypertonie
- en hypertonia

76

hipohazkunde (4)

- es hipocrecimiento
- fr hypocroissance

77

hipotonía (4)

Tentsio edo tonu gutxitua, bereziki, muskuluei dagokiena.

- es hipotonía
- fr hypotonie
- en hypotonia

78

hitz-moteltasun (4)

Sin. toteltasun (4)

Silabak edo hitzak errepikatzea eta hitz-jarioa espasmodikoki etetea eragiten dituen nahasmendua, psikoneurosi batek sortutakoa. Nahasmendu honetan, hiru alderdi nabarmen dira, hitz-jarioaren aldaketarekin batera: gehiegizko tentsio muskularra eta arnas erritmo desegokia mintzatzean, antsietatea edo herstura komunikazio sozialeko zenbait egoeratan, eta pertsona totelak bere buruarekiko duen igurikimen negatiboa.

- es tartamudez; disfemia
- fr b galement
- en stuttering

IK

Ik. inteligentzia-koziente

79

ikuseremu (4)

- es campo visual
- fr champ visuel
- en visual field

80

ikusmen-zolitasun (4)

Objektuen forma nahiz ertzak distantzia laburrera eta luzera hautemateko modua ematen duten ikusmenaren funtzioen multzoa.

- es agudeza visual
- fr acuit  visuelle
- en visual acuity

25

81

ikusmen-zolitasunaren

eskasia (4)

es déficit de la agudeza visual

fr déficit de l'acuité visuelle

en visual acuity deficit

82

inteligentzia-koiziente (4)

Sin. adimen-koiziente (4); IK (4)

Adimen-maila neurtzen duen koizientea, Binet-Simon eskalaren arabera neurtutako adimen-adina adin kronologikoarekin zatituz eta emaitza 100ekin biderkatuz kalkulatzen dena.

es cociente intelectual; CI

fr quotient d'intelligence; quotient intellectuel; Q.I.

en intelligence quotient; IQ

83

iraupen laburreko oroimen (4)

Informazioa oroimenean aldi baterako soilik (30 bat segundo inguru) gordetzeko aukera ematen duten funtzio mentalen multzoa. Ondoren, informazio hori, iraupen luzeko oroimenean finkatzen ez bada, galdu egiten da.

es memoria a corto plazo

fr mémoire à court terme

en short-term memory

84

iraupen luzeko oroimen (4)

Informazioa oroimenean denbora luzean gordetzeko aukera ematen duten funtzio mentalen multzoa.

es memoria a largo plazo

fr mémoire à long terme

en long-term memory

85

kakexia (4)

Desnutrizioaren azken muturreko egoera.

es caquexia

fr cachexie

en cachexia

86

katatonia (4)

Asaldu motor ugari dituen sindromea, kasu batzuetan mugiezintasuna (estupore katatonikoa) eta beste batzuetan hiperaktibitatea (eszitazio katatonikoa) erakusten duena; bi kasuetan, asalduak muturrekoak izaten dira.

es catatonia

fr catatonie

en catatonia

87

klauzikazio intermitente (4)

Muskuluetako min zorrotza, zirkulazio arterialaren gutxiegitasunak eragiten duena; ariketa fisikoa egitean nabarmentzen da, eta atseden hartzean arintzen da.

es claudicación intermitente

fr claudication intermittente

en intermittent claudication

88

koma (4)

Kontzientziaren andeatzea ezaugarritzat duen sindromea, gizabanakoak bere inguruarekin duen edozein komunikazio eragozten duena. Koman dagoen pertsona ezin esna daiteke egoera horretatik hitzeko estimulazio bidez, ezta estimulazio mingarrien bidez ere.

es coma

fr coma

en coma

kondukzio-afasia

Ik. eroapeneko afasia

89

kontzientzia-maila (4)

Kontzientziaren egoeretakako bakoitza.

Kontzientzioz, funtzio mentalen

asalduraren ondoriozko kontzientzia-maila hauek bereizten dira: obnubilazio mentala, estuporea eta koma.

es nivel de conciencia

fr niveau de conscience

en state of consciousness

90

koprolalia (4)

Hizkuntza lizun edo eskatologikoaren erabilera konpulsiboa.

es coprolalia

fr coprolalie

en coprolalia

91

korea (4)

Borondatezkoa ez den mugimendu espasmodiko eta bat-batekoa, pertsonaren mugimendu normalak edo gorputzaren postura egokia zailtzen dituena.

es corea

fr chorée

en chorea

92

korea-mugimenduak (4)

Sin. mugimendu koreikoak (4)

es movimientos coreicos

fr mouvements choréiques

en choreatic movements

93

maskuri automatiko (4)

es vejiga automática

fr vessie automatique

en automatic bladder

94

maskuri hipotoniko (4)

es vejiga hipotónica

fr vessie hypotonique

en hypotonic bladder

mintzaira monotono

Ik. tonu bakarrekoko mintzaira

95

mintzatzeko apraxia (4)

Mintzairaren oinarrian dagoen programa motorraren kodifikazioak eta programazio fonologiko osoak huts egiten duenean sortzen den apraxia.

es apraxia del habla

fr apraxie du langage

en speech apraxia

96

monoparesia (4)

Gorputz-adar edo muskulu-talde bakar baten paralisi partziala. Lesio neuromuskularrek eta, maizago, nerbio-sistema zentraleko edo nerbio-sistema periferikoko lesio batek eragindakoa izaten da.

es monoparesia

fr monoparésie

en monoparesis

97

monoplegia (4)

Gorputz-adar edo muskulu-talde bakar baten erabateko paralisia. Lesio neuromuskularrek eta, maizago, nerbio-sistema zentraleko edo nerbio-sistema periferikoko lesio batek eragindakoa izaten da.

es monoplejia

fr monoplégie

en monoplegia



98

mugako adimen (4)

- es** inteligencia límite; inteligencia borderline
- fr** intelligence frontière; intelligence limite
- en** borderline intelligence

mugimendu koreikoak

Ik. korea-mugimenduak

99

muskuluen atrofia (4)

Sin. amiotrofia (4)
Muskulu-ehun ildaskatuaren atrofia, muskuluaren bolumena eta, beraz, uzkurkortasuna murrizten dituena. Hainbat egoerak eragin dezakete. Adibidez: zuntz-muskularraren lesioak, burmuinaren edo nerbio-sistema periferikoaren lesioak eta kakexiak edo mugitu ezinik luzaro egoteak.

- es** atrofia muscular; amiotrofia
- fr** atrophie musculaire; amyotrophie
- en** muscle atrophy; amyotrophy

100

muskuluen paresia (4)

Muskulu-uzkurduretako indar-galera partziala edo arina. Zentzu hertsian, nerbio-sistema zentrolean edo nerbio motorren ibilbidean zehar gertatzen diren lesioek eragiten dute muskuluaren ahultasuna eta eraginkortasunik eza, eta, epe luzera, atrofia sor daiteke.

- es** paresia muscular
- fr** parésie musculaire
- en** muscle paresis

101

narkolepsia (4)

Eutsi ezineko hipersomnia eta gaueko loaldiaren nahasmendua ezaugarritzat dituen sindromea.

- es** narcolepsia
- fr** narcolepsie
- en** narcolepsy

102

narriadura kognitibo (4)

- es** deterioro cognitivo
- fr** détérioration cognitive
- en** cognitive impairment

103

obnubilazio mental (4)

Sin. adimen-lausotze (4)
Kontzientzia-mailaren beherakada arina, ernetasuna eta arreta gutxitzen dituena; baldartasun motorrarekin eta pentsamendu-prozesuak moteltzearekin batera agertzen da. Normalean, komaren aurretik gertatzen da.

- es** obnubilación mental
- fr** obscurcissement de la conscience
- en** clouding of consciousness

104

paralisi (4)

Muskulu-indarraren eta mugimenduaren erabateko galera, gorputz-atal bat edo gehiago ez mugitzea eragiten duena. Sistema muskuloeskeletikoaren hainbat zatitara irits daiteke, osorik edo neurri batean soilik.

- es** parálisis
- fr** paralysie
- en** paralysis

105

paralitiko (4)

- es** paralítico
- fr** paralytique
- en** paralytic

106

paraparesia (4)

Beheko bi gorputz-adarren indar-galera eta paralisi partziala; gehienetan, orno-muinean izandako lesioek eragiten dute.

- es** paraparesia
- fr** paraparésie
- en** paraparesis

107

paraplegia (4)

Beheko bi gorputz-adarren erabateko paralisia; gehienetan, orno-muineko lesioek eragiten dute.

- es** paraplejia
- fr** paraplégie
- en** paraplegia

108

parestesia (4)

Zentzumenera edo sentikortasun orokorraren sentsazio anormal eta desatsegina, ez-mingarria, inurridura- edo sorgortze-moduko sentsazio gisa nabarmentzen dena; nerbio-sistema zentraleko nahiz nerbio-sistema periferikoko egituren edozein ataletan gertatutako patologia batek sortu ohi du.

- es** parestesia
- fr** parasthésie
- en** paraesthesia

parkinson

Ik. Parkinson-en gaixotasun

109

Parkinson-en gaixotasun (4)

Sin. parkinson (4)
Gaixotasun neurologikoa, garuneko oinaldeko zelula espezializatu batzuen degenerazioak sortua. Normalean, 50 urtetik gorako pertsonengan agertzen da. Dardara, zurruntasuna eta mugimenduen baldartasun eta moteltasuna dira sintoma nagusiak.

- es** enfermedad de Parkinson; párkinson
- fr** maladie de Parkinson; Parkinson
- en** Parkinson's disease

Parkinson-en sindrome

Ik. parkinsonismo

110

parkinsonismo (4)

Sin. Parkinson-en sindrome (4)
Parkinson-en gaixotasunaren diagnostiko klinikorako ezaugarri semiologiko atipikoak dituzten sindrome zurrun/azinetikoetako bakoitza.

- es** parkinsonismo
- fr** parkinsonisme
- en** parkinsonism

111

performantzia (4)

Zereginak ingurune errealean egitea edo betetzea. Jardueren eta parte-hartzearen osagaian bereizten diren bi konstruktuetako bat da.

- es** desempeño; realización
- fr** performance
- en** performance

112

tetraparesia (4)

Lau gorputz-adarren ahultasuna eta paralisi partziala; gehienetan, lepoko orno-muinean izandako lesioak eragiten du, baina garunean ere izan dezake jatorria.

es tetraparesia
fr tétraparésie
en tetraparesis

113

tetraplegia (4)

Lau gorputz-adarren erabateko paralisia; gehienetan, lepoko orno-muinean izandako lesioak eragiten du, baina garunean ere izan dezake jatorria.

es tetraplejia
fr tétraplégie
en tetraplegia

114

tonu bakarreko mintzaira (4)

Sin. mintzaira monotono (4)

es habla monótona
fr élocution monotone
en monotone speech

toteltasun

Ik. hitz-moteltasun

115

tunel-ikuskeria (4)

es visión en túnel
fr vision en tunnel
en tunnel vision

116

urritasun (4)

Gorputz-egitura baten edo funtzio fisiologiko nahiz mental baten galera; egitura edo funtzio horiek arau estatistiko batekiko duten desbiderapen esanguratsua.

es deficiencia
fr déficience
en impairment

30

117

uzki-esfinterraren**gutxiegitasun (4)**

Sin. uzki-esfinterreko ihes (4)

es incontinencia del esfínter anal; incontinencia fecal; insuficiencia del esfínter anal
fr insuffisance du sphincter anal; incontinence anale
en anal sphincter incompetence

uzki-esfinterreko ihes

Ik. uzki-esfinterraren gutxiegitasun

118

Wernicke-ren afasia (4)

Etenik gabe eta zentzurik gabe, akatsak zuzentzen saiatu barik, hitz egitea eragiten duen asaldua. Ulermena, errepikapena, izendapena, irakurmena eta idazmena kaltetuak daude.

es afasia de Wernicke
fr aphasie de type Wernicke
en Wernicke's aphasia

119

zizakadura (4)

es balbuceo
fr bredouillement
en babbling

I.2.2. Jarduerak eta parte-hartzea

120

arazoak konpondu (4)

Sortzen diren arazo eta egoeren aurrean konponbideak bilatu; era bateko edo besteko alderdiak identifikatu eta analizatuz, aukerak eta konponbideak zehaztuz, konponbideetatik sor daitezkeen ondorioak ebaluatuz eta aukeratutako konponbidea gauzatzuz egiten da.

es resolver problemas
fr résoudre des problèmes
en solving problems

121

batetik bestera mugitu (4)

Hainbat lekutan eta egoera desberdinetan higitu; esate baterako, etxe barruko geletan, eraikin baten barruan edo herri bateko kaleetan.

es desplazarse por distintos lugares
fr se déplacer dans différents lieux
en moving around in different locations

122

begiratu (4)

es mirar
fr regarder
en watching

EBJ

Ik. eguneroko bizitzako jarduera

EBJI

Ik. eguneroko bizitzako jarduera instrumental

EBOJ

Ik. eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera

123

edan (4)

es beber
fr boire
en drinking

124

eginkizun bakar bat gauzatu (4)

es llevar a cabo una única tarea
fr entreprendre une tâche unique
en undertaking a single task

125

eguneroko bizitzako jarduera (4)

Sin. EBJ (4)

Herritar guztientzat arrunta den edozein jarduera. Halakoak dira, besteak beste, hauek: norberaren zaintzako jarduerak, komunikaziokoak, sentimenen ingurukoak, eskulanean lotuak, garraioari buruzkoak, loarekin lotuak, funtzio sexuala, jarduera fisikoak (intrinsicokoak nahiz funtzionalak) eta jarduera sozialak nahiz aisiakoak.

es actividad de la vida diaria; AVD
fr activité de la vie quotidienne; AVQ
en activity of daily living; ADL

31



126

eguneroko bizitzako jarduera instrumental (4)

Sin. EBJI (4)

Bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko behar dena baino autonomia-maila handiagoa eskatzen duten jardueretako bakoitza, erabakiak hartzeko gaitasuna eta ingurunearekiko interakzio-maila konplexuagoa eskatzen duena. Halakoak dira, besteak beste, hauek: telefonoa erabiltzea, botikak hartzea gogoratzea, hanketako azazkalak moztea, eskailerak igotzea, autobusa, metroa edo taxia hartzea, norberaren otordua prestatzea, bizitzeko behar direnak erostea, etxeko lanak egitea, paseatzea, medikuarengana joatea, izapide-paperak betetzea eta norberaren dirua kudeatzea.

- es** actividad instrumental de la vida diaria; AIVD
- fr** activité instrumentale de la vie quotidienne; AIVQ
- en** instrumental activity of daily living; IADL

127

eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera (4)

Sin. EBOJ (4)

Pertsona batek bere bizitzan egiten dituen funtsezko jardueretako bakoitza, bere kabuz eta gutxieneko autonomia-maila batekin aritzeko gaitasuna ematen diona. Halakoak dira, besteak beste, hauek: bere burua zaintzea, etxeko lan arruntak egitea, oinarrizko mugikortasuna izatea, pertsonak eta gauzak ezagutzea, orientatzea eta zeregin edo agindu arruntak ulertzea eta betetzea.

- es** actividad básica de la vida diaria; ABVD
- fr** activité basique de la vie quotidienne; activités de la vie quotidienne de base; AVQ-b
- en** basic activity of daily living; BADL

ekipamendu bidez lekualdatze

Ik. ekipamendu bidez mugitze

128

ekipamendu bidez mugitze (4)

Sin. ekipamendu bidez lekualdatze (4)

Gorputza leku batetik beste batera eramatea, edozein gainazal edo espaziotan mugituz eta errazago edo beste modu batera mugitzeko diseinatutako tresna espezifikoak erabiliz. Tresna espezifiko horien artean daude, besteak beste, hauek: eskiak, ur azpian ibiltzeko ekipamendua, gurpil-aulkiak eta taka-takak.

- es** desplazarse usando algún equipamiento
- fr** se déplacer en utilisant des équipements
- en** moving around using equipment

129

entzun (4)

- es** escuchar
- fr** écouter
- en** listening

130

